



TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA EZINDUENTZAKO SALBUESPENA 2022.URTEAN

BETEKIZUNAK

- % 33ko edo hortik gorako eta %65etik beherako ezintasuna edukitzea zerga ordaindu beharra sortzen den egunean, eta gainera,
 - ✚ A, B edo C letretan sailkatuta egotea edo
 - ✚ 7 puntu edo gehiago lortzea garraio publiko kolektiboak erabiltzea eragozten duten mugikortasun zailtasunen ebaluazioan; organo eskudunak gradua aitortzeko ematen duen ebazpenean ageri da datu hori.
- %65eko edo hortik gorako ezintasuna edukitzea –eskumena duen organoak onartua–, zerga ordaindu beharra sortzen den egunean.
- 14 ZALDI FISKAL BAINO GUTXIAGOKO ibilgailua izatea zerga ordaindu beharra sortzen den egunean.

A letran sailkatutako pertsonen ez zaie 14 zerga zaldien muga ezarriko, baldin eta ibilgailua gurgil aulkiaz erabiltzeko egokituta badago.
- Zirkulazio baimenak ezinduaren izenean egon beharko du.

Zergatik salbuetsita ere geldituko dira, guraso ahala, tutoretza edo kuradoretza dela-eta, % 65 edo gehiagoko desgaitasun maila duen pertsona bat zaintzeko ardura dutela egiaztatzen dutenen ibilgailuak.
- Ezinduak bakarrik erabiltzeko edo hura eramateko izan beharko du ibilgailuak.
- Ezindu bakoitzak aldi berean ibilgailu bakarra salbuetsi ahalko du zerga ordaintzetik.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- **ESKABIDEA:** Vitoria-Gasteizko Udalaren eredu arrunta
- **Ezintasunaren ziurtagiri** eguneratua, organo eskudunak emana.

Organo eskuduna:

 - ✚ Arabako Foru Aldundia – Gizarte Ongizaterako Foru Erakunda.
Desgaitasuna Duten Personeren Arloa
San Prudencio kalea, 30 behea ☎ 945-15 10 15
- **Ibilgailuaren zirkulazio baimena eta fitxa teknikoa.**
- **Ibilgailua zertarako erabiltzen den azaltzen duen deklarazioa**, zeina agiriarekin batera aurkeztu behar baita.
 - ✚ **Berak bakarrik** erabiltzeko dela adierazten badu: gidatzeko baimena, indarrean.
 - ✚ **Bera eramateko** dela adierazten badu: eraman ohi duen pertsonaren izen-deiturak eta nortasun-agiriaren zenbakia eman beharko ditu, eta hark indarrean duen gidatzeko baimenaren kopia erantsi —ezinduarekin batera erroldatuta egon beharko du pertsona horrek zerga sortzen den unean, salbu eta ezindua A letran sailkatuta badago—.

SALBUESPENA ESKATZEKO EPEA indarrean dagoen ekitalditik aurrera ondorioak izan ditzan:

- **Urtarriletik lehenean alta emanda dauden ibilgailuak:** Ibilgailuak Vitoria-Gasteizko Udaleko erroldan altan egon behar du eta aipatutako betekizunak bete behar ditu **urtarrilaren lehenerako Epea: hilabete**, borondatez ordaintzeko azken egunaren biharamunetik kontatuta (**2022-06-13ra arte**).
- **Matrikulazio berrien ondoriozko alta: 30 laneguneko** epean eskatu beharko da, ibilgailua erroldan sartzen denetik kontatuta, eskatzen diren betekizun guztiak egun horretarako betetzen dituelarik. **Epe horiek igaro ondoren aurkezten diren eskabideek hurrengo ekitalditik aurrera izango dute eragina.**

Vitoria-Gasteizen, 2022ko urtarrilaren 1ean.
ZERGA KUDEAKETARAKO ZERBITZUA